



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Kontsumo ohiturak Itsasondon, hizkuntz hautua erdigunean

ITSASONDOKO EROSKETA, INFORMAZIO, KULTUR ETA AISIALDI
HAUTUEN AZTERKETA BAT

Itsasondoko Udala eta UEMA | 2019ko maiatzaren 13a

AURKIBIDEA

| | | |
|------|---|----|
| 1. | SARRERA..... | 2 |
| 2. | METODOLOGIA..... | 2 |
| 3. | DATU OROKORRAK..... | 2 |
| 3.1. | Generoa eta adin tartea..... | 2 |
| 3.2. | Hizkuntzari lotutako datuak..... | 3 |
| 4. | KONTSUMO OHITURAK DENDETAN ETA TABERNETAN..... | 5 |
| 4.1. | Ekoizpena eta etiketatua..... | 5 |
| 4.2. | Aurrez aurreko zerbitzua..... | 6 |
| 5. | KONTSUMO OHITURAK HEDABIDEETAN..... | 7 |
| 5.1. | Prentsa idatzia..... | 7 |
| 5.2. | Telebista..... | 9 |
| 5.3. | Marrazki bizidunak..... | 11 |
| 5.4. | Irratia..... | 12 |
| 5.5. | Webguneak..... | 14 |
| 6. | KULTURA ETA EKITALDIEN KONTSUMO OHITURAK..... | 16 |
| 6.1. | Musika..... | 16 |
| 6.2. | Literatura..... | 19 |
| 6.3. | Filmak..... | 21 |
| 6.4. | Antzerkia..... | 23 |
| 7. | ONDORIO OROKORRAK..... | 24 |
| 8. | GAIA LANTZEKO PROPOSAMENAK..... | 27 |

1. Sarrera

Txosten honetan jaso ditugu *Kontsumo ohiturak Itsasondon, hizkuntz hautua erdigunean* ikerlaneko emaitzak. Itsasondoko Udalaren eta UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen artean egin da azterlana. Itsasondoko Udalak herritarren kontsumo ohiturak eta haien hizkuntz hautuak ezagutu nahi izan ditu, eta horregatik jarri du abian prozesu hau. Kontsumo ohiturez ari garenean, erosketak egiterakoan, informatzerakoan eta kultur zein aisialdi hizkuntza hautatzerakoan eginiko hizkuntz aukeraketez ari gara. 166 herritarrek parte hartu dute, inkesta bidez beraien iritzia eta portaeraren berri emanda, eta datu horien azterketa eta ondorioak jaso dira orrialde hauetan. Behin datuak eskuan, marrazteko dago zein izango den datorren bideorria.

2. Metodologia


Itsasondoko Udalak eta UEMAk elkarlanean egin dute ikerketa hau. Horretarako, inkesta prestatu da, eta eskuz esku zein Internetetik zabaldu da herrian. Eskolaren bidez, tabernetan, batzorde eta bileretan... aprobetxatu da zabalkundea egiteko. Elur bolaren teknika erabili da inkesta egiteko, eta ahalik eta gehien zabaldu da. Alegia, ez da kontuan hartu adin tarte guztien eta generoaren oreka, ezta, inkesta bete duten pertsonen perfila ere, helburua izan delako ahalik eta herritar gehien iritzia jasotzea.

Hasierako helburua izan da 204 inkesta jasotzea. Izan ere, 657 pertsonako udalerria izaki, %95eko konfiantza maila eta %7ko akats tarte izango genuke datuak interpretatzerakoan. Dena den, 166 inkesta bete dira, beraz, ez gara helburu horretara iritsi. Dena den, herritarren %25,27 da erantzun dutenen kopurua. Horrenbestez, uste dugu esanguratsuak izan daitezkeela erantzunak, herritarren ohituren isla izan daitezkeelako. Halere, tentuz interpretatu behar dira, eta hala egingo da.

3. Datu orokorrak

3.1. GENEROA ETA ADIN TARTEA

Galdetegia bete duten 166 herritarren artean, 102 emakumeak izan dira (%64,45); eta 64, berriz, gizonak (%38,55).




Adinari dagokionez, honakoak dira zifrak:


- 2 eta 15 urte artean: 54 pertsona (%32,53).
- 16 eta 25 urte artean: 14 pertsona (%8,43).
- 26 eta 39 urte artean: 25 pertsona (%15,06).
- 40 eta 59 urte artean: 67 pertsona (%40,36).
- 60 urtetik gora: 6 pertsona (%3,61).

3.2. HIZKUNTZARI LOTUTAKO DATUAK


Inkesta bete duten 166 pertsonatik, 158k daki euskaraz (%95,18k); euskaraz ez dakitenak 8 dira (%4,82). Lehen hizkuntza gisa euskara jaso du 133k (%80,12k) eta 33k (%19,88k) gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso du. Etxeko erabilerari dagokionez, 115ek (%69,28k) esan du euskara erabiltzen duela egunerokoan; 17k (%10,24k) gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzen duela eta 34k (%20,48k) euskara erabiltzen du, gaztelaniarekin edota beste hizkuntza batzuekin batera.



Ezagutza, ehunekotan




Lehen hizkuntza, ehunekotan




Gaitasunaren inguruan, berriz, 89k (%53,61ek) adierazi du euskaraz hobeto moldatzen dela beste hizkuntzetan baino. Gaztelaniaz hobeto moldatzen direnak 25 dira (%15,06) eta bietan pareko gaitasuna dutenak 50 (%30,12). Bestalde, bi lagunek euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntza batean hobeto moldatzen direla adierazi dute (%1,2).

Etxeko erabilera, ehunekotan




Gaitasuna, ehunekotan




4. Kontsumo ohiturak denetan eta tabernetan

4.1. EKOIZPENA ETA ETIKETATUA

Zati honetan, inkesta bete dutenei galdetu zaie ea erosketak egiterakoan kontuan izaten duten produktua gertu ekoitzia den eta euskaraz etiketatuta dagoen. 20 pertsonak (%12,05ek) erantzun dute beti begiratzen diotela aldagai horri; 48k (%28,92k) gehienetan erreparatzen diote; 53k (%31,93k) batzuetan; 24k (%14,45ek) ez diote erreparatzen aldagai horri; eta 5k (%3k) esan dute ez dutela erosketarik egiten.



Genero aldagaiari erreparatuta, emakumeen artean gehiagok erantzun dute beti edo gehienetan erreparatzen diotela produktuaren ekoizpen lekuari eta etiketatuari. Halere, ez dago alde handirik. Emakumeen %42,2k esan du beti edo gehienetan erreparatzen diola; eta gizonen %39k. Adin tarteei erreparatuz gero, joera da adinean gora egin ahala, orduan eta garrantzi gehiago ematea aldagai horri. Izan ere, 60 urtetik gorakoek begiratzen diote gehien, inkesta erantzun dutenen %66,67k eta, ondoren, 40 eta 59 urte artekoak daude, %49,25eko portzentajearekin. 26 eta 39 urte artekoen artean, %48k adierazi du beti edo gehienetan erreparatzen diotela; 16 eta 25 urtekoen artean, %28,57k eta 2 eta 15 urtekoen artean, %27,78k.




4.2. AURREZ AURREKO ZERBITZUA


Bestetik, taberna eta dendetan, langile euskalduna izatea baloratzen duten galdetu zaie. Inkesta bete dutenetatik 91k (%54,82k) esan dute beti ematen diotela garrantzia; 35ek (%21,08k) gehienetan ematen diotela garrantzia; 17k (%10,24k) batzuetan, 4k (%2,4k) adierazi dute ez duela erostekarik egiten eta ez direla harremantzen tabernariekin.

Hizkuntzaren ezagutzarekin badute lotura datuek. Izan ere, euskaraz dakitenen %79,75ek adierazi du beti edo gehienetan ematen diotela garrantzia dendetan eta tabernetan langile euskalduna egoteari. Euskaldunen %6,96k soilik esan du ez dutela aldagai hori kontuan hartzen.

Zerbitzua euskaraz jasotzea baloratzen dutenak, ehunekotan



Adin taldeei erreparatuz gero, 26 eta 59 urte arteko herritarrak dira garrantzia handiena eman diotenak langile euskalduna izateari. Bi adin tartetean, %80k baino gehiagok baloratu dute.




5. Kontsumo ohiturak hedabideetan

5.1. PRENTSA IDATZIA

Prensa idatziko kontsumoaz galdetu zaienean, tokiko hedabideak eta hedabide nazionalak izan dira kontuan. Honako aukeren artean eman zaie bat hautatzeko: *Goierriko Hitza/Goiberri*, *Berria*, *Argia*, *besteren bat* eta *ez dut idatzizko prentsa kontsumitzen*. Egunkari/aldizkari bat baino gehiago kontsumitzen dutenei, ohikoena aukeratzeko eskatu zaie. Inkesta bete dutenen artean, honakoak dira hedabide bakoitzaren datuak:

- *Hitza/Goiberri*: 66 irakurle (%39,76).
- *Berria*: 17 irakurle (%10,24).
- *Argia*: 4 irakurle (%2,40).
- *Besteren bat*: 28 irakurle (%16,87).
- *Ez dut idatzizko prentsa kontsumitzen*: 51 pertsona (%30,72).


Prensa idatziaren hautaketa, ehunekoetan



Adin taldeka erreparatuta, honakoak dira datuak:

- 2 eta 15 urtekoen artean, %40,74k *Goierriko Hitza* edo *Goiberri* irakurtzen ditu; %11,11k *Berrria*; %9,26k beste egunkariren bat eta %38,89k ez du prentsarik irakurtzen.
- 16 eta 25 urtekoen artean, %35,71ak *Goierriko Hitza* edo *Goiberri* irakurtzen ditu; %14,26k *Berrria*; %14,26k besteren bat eta %35,71k ez du prentsa idatzia kontsumitzen.
- 26 eta 39 urtekoen artean, %44k *Goierriko Hitza* edo *Goiberri* irakurtzen ditu; %12k *Berrria*; %8k *Argia*; %8k beste hedabideren bat eta %28k ez du idatzizko prentsa kontsumitzen.
- 40 eta 59 urte bitartean, %35,82k *Goierriko Hitza* eta *Goiberri* irakurtzen ditu; %8,96k *Berrria*; %2,99k *Argia*; %28,16k besteren bat eta %26,56k ez du kontsumitzen prentsa idatzirik.
- 60 urtetik gorakoen artean, %66,67k *Goierriko Hitza* eta *Goiberri* irakurtzen ditu; %16,67k besteren bat eta %16,67k ez du kontsumitzen prentsa idatzirik.

Prentsa kontsumitzeko ohitura, adin taldeka




5.2. TELEBISTA

Telebistaren kontsumoaz galdetzean, euskarazko tokiko hedabideak eta hedabide nazionalak izan dira kontuan. Honako aukeren artean eman zaie bat hautatzeko: *Goierri Irrati Telebista*, *Hamaika Telebista*, *ETB1*, *besteren bat* edo *ez dut telebista ikusten*. Hedabide bat baino gehiago kontsumitzen dutenei eskatu zaie maiztasun handienez ikusten dutena aukeratzeko. Honakoak dira emaitzak:


- ETB1: 70 ikus-entzule (%42,17).
- GIT Goierri Irrati Telebista: 3 ikus-entzule (%1,8).
- Hamaika telebista: 2 ikus-entzule (%1,2).
- Besteren bat: 79 ikus-entzule (%47,59).
- Ez dute telebistarik ikusten: 12 pertsona (%7,23).

Telebistaren hautaketa, ehunekoetan



Adin taldeka erreparatuta, honakoak dira datuak:

- 2 eta 15 urtekoen artean, %51,85ek euskarazkoak ez diren beste telebista-kate batzuk kontsumitzen ditu; %40,74k EITB1 ikusi ohi du; %3,7k GIT ikusten du; eta %3,7k ez du ikusten telebista.
- 16 eta 25 urtekoen artean, %64,29k euskarazkoak ez diren beste telebista-kate batzuk kontsumitzen ditu; %21,43k EITB1 ikusi ohi du; %7,14k GIT ikusten du; eta %7,14k ez du ikusten telebista.
- 26 eta 39 urtekoen artean, %40k euskarazkoak ez diren beste telebista-kate batzuk kontsumitzen ditu; %32k EITB1 ikusi ohi du; eta %28k ez du ikusten telebista.
- 40 eta 59 urte bitartean, %50,74k EITB1 ikusi ohi du; %44,77k euskarazkoak ez diren beste telebista-kate batzuk kontsumitzen ditu; %1,49k GIT ikusten du; beste %1,49k Hamaika telebista ikusten du; eta %1,49k ez du ikusten telebista.
- 60 urtetik gorakoen artean, %50ek EITB1 ikusi ohi du; %33,33k euskarazkoak ez diren beste telebista-kate batzuk kontsumitzen ditu; eta %16,67k ez du ikusten telebista.




5.3. MARRAZKI BIZIDUNAK

Marrazki bizidunen kontsumoaz ere galdetu zaie inkesta bete dutenei. Haietatik 21ek (%12,65ekk) ETB1en ikusten dituzte; 35ek (%21,08k) ETB3 dute ohiko kate bezala; 46k *Clan*, *Boing*, *Disney Chanel* edo gaztelaniazko beste kateren bat ikusten dute (%27,71k). Inkesta bete dutenetatik 64k, berriz, ez du ikusten marrazki bizidunik (%38,54k).

2-15 urte bitarteko adin taldera jotzen badugu, honakoak dira datuak: 30ek (%55,56k) *Clan*, *Boing*, *Disney Chanel* edo gaztelaniazko beste kateren batean ikusten dituzte marrazki bizidunak. 7k (%12,96) ETB1 aukeratzen dute; 12rentzat (%22,22) ETB3 da kate ohikoena; eta 5ek (%9,26k) ez du ikusten marrazki bizidunik.

2-15 urte bitarteko en marrazki bizidunen kontsumoa, ehunekotan




5.4. IRRATIA

Irratiaren kontsumoari dagokionez, honako errefrentzietatik gehien entzuten dutena aukeratzeko eskatu zaie inkesta bete duten herritarrei: *Euskadi Irratia, Gaztea, Info7 Irratia (gaur egun, Naiz irratia), Segura Irratia, Arrate Irratia, GIT Goierri Irrati Telebista, besteren bat* edo *ez dut entzuten irratirik*.

Honakoak dira emaitzak:


- *Euskadi Irratia*: 48 entzule (%28,91).
- *Gaztea*: 50 entzule (%30,12).
- *Info7*: 6 entzule (%3,61).
- *Segura Irratia*: 8 entzule (%4,82).
- *Arrate Irratia*: 2 entzule (%1,2).
- *GIT Goierri Irrati Telebista*: 6 entzule (%6,61).
- *Besteren bat*: 23 entzule (%13,85).
- *Ez dut irratia entzuten*: 23 pertsona (%13,85).

Irrati kontsumoa, ehunekotan



Adin taldeka, hauek dira datuak:


- 2 eta 15 urtekoen artean, %31,48k esan du *Gaztea* entzun ohi duela, beste %31,48k ez du irratarik entzuten. Gainontzeko zifrak baxuagoak dira: %16,67k euskarazkoak ez diren beste irrati batzuk entzuten ditu; %12,96k *Euskadi Irratia*; %3,7k *Info7* irrati eta beste %3,7k *GIT*. *Segura* eta *Arrate Irratiak* ez dituzte hautatu.
- 16 eta 25 urtekoen artean, %71,43k *Gaztea* aukeratu du, %21,42k *Euskadi Irratia* eta %7,14k beste irratiaren bat. Beste aukerak ez dituzte hautatu.
- 26 eta 39 urtekoen artean, %40k *Gaztea* entzun ohi du; %28k *Euskadi Irratia*; %8k *GIT*; %4k *Segura Irratia*; %4k *Info7 Irratia* eta beste %4k beste irratiaren bat. %12k ez du irratarik entzuten.
- 40 eta 59 urte bitartean, ia erdiek aukeratu dute *Euskadi Irratia*, %44,78k; ondoren, 19,40k *Gaztea* entzun ohi du; %16,42k beste irrati-kate bat entzuten du; %7,69k *Segura Irratia*; %2,98k *GIT*; %1,49k *Arrate Irratia* eta %2,98k ez du entzuten irratarik.
- 60 urtetik gorakoen artean, %33,33k *Segura Irratia* entzun ohi du; %16,67k *Arrate Irratia*; %16,67k *Euskadi Irratia*; %16,67k beste irratiaren bat eta %16,67k ez du entzuten irratarik.



5.5. WEBGUNEETAKO ALBISTEAK


Albisteak Internet bidez irakurtzen dituztenean zer hautu egiten duten galdetu zaie herritarrei. Honako aukerak eman zaizkie: *argia.eus*, *berria.eus*, *eitb.eus*, *goierri.hitza.eus*, *naiz.info*, *besteren bat* eo *ez dut kontsumitzen*.

- *argia.eus*: 5 irakurle (%3,01).
- *berria.eus*: 14 irakurle (%8,43).
- *eitb.eus*: 18 irakurle (%10,84).
- *goierri.hitza.eus*: 6 irakurle (%3,61).
- *naiz.info*: 23 irakurle (%13,86).
- Beste bat: 28 irakurle (%16,87).
- Ez dut kontsumitzen: 72 herritar (%43,37).



Adin taldeka, hauek dira datuak:

- 2 eta 15 urtekoen artean, erdiak baino gehiagok esan du ez duela informazioa kontsumitzen euskarri horretan, %66,67k. Ondoren, *eitb.eus* da gehien bisitatzen duten webgunea, %18,51arekin; beste webgune bat, %7,40k; *goierri.hitza.eus*, %5,56k eta *berria.eus*, %1,85ek.
- 16 eta 25 urtekoen artean, %28,57k ez du kontsumitzen informaziorik webgunean; %21,43k *berria.eus* kontsumitzen du, eta *naiz.info* beste %21,43k; *eitb.eus*, %14,28k; *goierri.hitza.eus*, %7,14k eta beste bat %7,14k.
- 26 eta 39 urtekoen artean, %24k ez du kontsumitzen informaziorik webgunean; %20k euskarazkoa ez den beste hedabideren bat kontsumitzen du; %16k *berria.eus* kontsumitzen du, eta *naiz.info* beste %16k; *eitb.eus*, %4k; *goierri.hitza.eus*, %4k eta *argia.eus*, beste %4k.
- 40 eta 59 urte bitartean, %31,34k ez du kontsumitzen informaziorik webgunean; %26,87k euskarazkoak ez diren beste bat edo batzuk; %7,46k *berria.eus*; %7,46k *eitb.eus*; %19,40k *naiz.info*; %5,97k *argia.eus* eta %1,49k *goierri.hitza.eus*.
- 60 urtetik gorakoen artean, %83,33k ez du kontsumitzen informazioa euskarri horretan eta %16,67k *berria.eus*-en irakurtzen du.



6. Kultur ekitaldien kontsumo ohiturak


6.1. MUSIKA

6.1.1. Musikaren kontsumoa

Kultur kontsumoaren inguruan galdetzean, hizkuntzaren irizpidea soilik erabili da. Alegia, musika gehien bat zer hizkuntzatan entzuten duten erantzun dute: *euskaraz, gaztelaniaz, beste hizkuntza batzuetan, hizkuntza bat baino gehiagotan berdin* edo *ez dut muskarik entzuten* izan dira aukerak. Honakoak dira emaitzak:


- Euskaraz: 44 (%26,50).
- Gaztelaniaz: 15 (%9,03).
- Beste hizkuntza batzuetan: 5 (%3,01).
- Hizkuntza bat baino gehiagotan berdin: 98 (%59,04).

- Ez dut musikarik entzuten: 4 (%2,4).



Adin taldeka, hauek dira datuak:


- 2 eta 15 urtekoen artean, %61,11ak erantzun du edozein hizkuntzatan berdin entzuten duela musika; %22,22k euskara lehenetsi du; %14,81ak gaztelania; eta ingelesa edo beste hizkuntza batzuk %1,98ak.
- 16 eta 25 urtekoen artean, %57,14k erantzun du edozein hizkuntzatan berdin entzuten duela musika; %28,57k euskara lehenetsi du; eta %14,26k gaztelania.
- 26 eta 39 urtekoen artean, %48k adierazi du hizkuntza bat baino gehiagotan hizkuntzatan berdin entzuten duela musika; %36k euskara lehenetsi du; %12k gaztelania eta %4k ingelesa edo beste hizkuntzak.
- 40 eta 59 urte bitartean, %64,18k adierazi du edozein hizkuntzatan berdin entzuten duela musika; %25,37k euskara lehenetsi du; %4,48k ingelesa edo beste hizkuntzak; %2,99k gaztelania; eta %2,99k esan du ez duela entzuten musika.
- 60 urtetik gorakoen artean, %33,33k edozein hizkuntzatan entzuten du musika; %33,33k euskaraz eta beste %33,33k ez du entzuten musikarik.




6.1.2. Kontzertuetara joateko ohitura

Inkesta bete dutenei, musika kontsumoarekin batera, galdetu zaie ea kontzertuetara joateko ohitararik duten. Horretarako, galdetu zaie azken urtean kontzerturen batera joan diren eta zer hizkuntzatan izan den.

166tik 82 izan dira azken urtean kontzerturen batean, %49,40. Horietatik, 57 (%69,51) euskarazko kontzertuetan izan dira; 7 gaztelaniazkoetan (%5,54); 4 ingelesez edo beste hizkuntzaren batean (%4,88); eta 21ek (%25,60) kontzertu bat baino gehiago ikusi dituzte, hizkuntza bat baino gehiagotan.



Kontzerturen batean edo gehiagotan izan direnen artean, hizkuntza hautua, ehunekotan




- Euskaraz
- Gaztelaniaz
- Ingelesa edo beste bat
- Hizkuntza bat baino gehiagotan, kontzertu bat baino gehiago

6.2. LITERATURA

6.2.1. Literatur kontsumoa

Literatura, paperekoa zein digitala, zein hizkuntzatan irakurtzen duten galdetu zaie atal honetan: *euskaraz, gaztelaniaz, beste hizkuntza batzuetan, edozer hizkuntzatan berdin* edo *ez dut irakurtzen* ziren aukerak. Honakoak dira emaitzak:


- Euskaraz: 39 (%23,49).
- Gaztelaniaz: 58 (%34,94).
- Beste hizkuntza batzuetan: 1 (%0,60).
- Edozer hizkuntzatan berdin: 39 (%23,49).
- Ez dut libururik irakurtzen: 29 (%17,47).



Adin taldeka, hauek dira datuak:

- 2 eta 15 urtekoen artean, %38,89k adierazi du euskaraz irakurtzen duela gehien, eta beste %38,89k, berriz, edozein hizkuntzatan berdin irakurri ohi duela. Ondoren, %9,26k euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetan irakurtzen du gehien; %1,85k gaztelaniaz, eta %11,11k ez du irakurtzeko ohiturarik.
- 16 eta 25 urtekoen artean, gaztelaniaz irakurtzeko ohitura du %42,85ek; euskaraz, %28,57; edozein hizkuntzatan berdin irakurtzen du %14,29k. %14,29k ez du irakurtzeko ohiturarik.
- 26 eta 39 urtekoen artean, gehien bat gaztelaniaz irakurtzen du %40k; euskaraz, %12k; eta edozein hizkuntzatan berdin irakurtzen du %20k. %28k ez du irakurtzeko ohiturarik.
- 40 eta 59 urte bitartean, gehien bat gaztelaniaz irakurtzen du %50,75ek; euskaraz, %16,42k; edozein hizkuntzatan berdin %14,92k. %17,91k ez du irakurtzen libururik.
- 60 urtetik gorakoen artean, %50ek gaztelaniaz irakurtzen du; %16,67k edozein hizkuntzatan berdin; eta %33,33k ez du irakurtzen.

Gehien bat zer hizkuntzatan irakurtzen den, adin taldeka



6.3. FILMAK


6.3.1. Pelikulen eta zinemaren kontsumoa

Filmak zein hizkuntzatan ikusteko ohitura duten galdetu zaie atal honetan: *euskaraz, gaztelaniaz, beste hizkuntza batzuetan, edozer hizkuntzatan berdin* edo *ez ditut ikusten* ziren aukerak¹. Honakoak dira emaitzak:

- Euskaraz: 9 (%5,42).
- Gaztelaniaz: 131 (%78,92).
- Beste hizkuntza batzuetan: 1 (%0,60).
- Edozer hizkuntzatan berdin: 19 (%11,45).
- Ez dut libururik irakurtzen: 6 (%3,61).

¹ Interesgarria izan zitekeen arren, ez da galdetu filmak jatorrizko hizkuntzan ikusten ote diren, horrek ez zuelako bidea ematen hizkuntza identifikatzeko.

Filmak zer hizkuntzatan, ehunekoetan




- Euskaraz
- Gaztelaniaz
- Edozein hizkuntzatan berdin
- Ingelesez edo beste hizkuntza batzuetan
- Ez dut pelikularik ikusten

Adin taldeka, hauek dira datuak:

- 2 eta 15 urtekoen artean, gaztelaniaz ikusten dituzte pelikulak %94,44k. Ondoren, %1,85ek adierazi du berdintsu ikusten dituztela edozein hizkuntzetan; %1,85ek euskaraz ikusteko ohitura dutela eta beste %1,85ek ingelesez edo beste hizkuntza batzuetan ikusten dituztela.
- 16 eta 25 urtekoen artean, %92,86k gaztelaniaz ikusi ohi ditu filmak; eta %7,14k, edozer hizkuntzatan berdin.
- 26 eta 39 urtekoen artean, %40k filmak gaztelaniaz ikusteko ohitura du; %5ak edozer hizkuntzatan berdin kontsumitzen ditu pelikulak; %12k euskaraz; eta %28k ez du kontsumitzen filmik.
- 40 eta 59 urte bitartean, %67,17k pelikulak gaztelaniaz ikusteko ohitura du; %17,91ek edozer hizkuntzatan berdin ikusten ditu; %8,95ek euskaraz ikusi ohi dituzte, eta %5,97k ez ditu ikusten filmak.
- 60 urtetik gorakoen artean, %83,33k gaztelaniaz ikusten dituzte pelikulak, eta %16,67k ez du ikusten pelikularik.

Filmen kontsumoa, hizkuntza eta adina kontuan izanda



6.3.2. Zinemara joateko ohitura


Inkesta bete dutenei, pelikulen kontsumoarekin batera, galdetu zaie ea zinemara joateko ohiturarik duten. Horretarako, azken urtean zinemara joan ote diren eta filma zer hizkuntzatan ikusi duten galdetu zaie.

166tik 67 lagun izan dira zinemara azken urtean (%40,35k), eta 99 ez (59,65k). Zinemara joan diren 67 horietatik, 41ek (%61,19k) gaztelaniaz ikusi dituzte film guztiak edo ia guztiak; 10ek, euskaraz (14,93); eta 16k (%23,88), bietan paretsu. Inork ez du ikusi pelikularik beste hizkuntzaren batean zinema aretoetan.

6.4. ANTZERKIA


Antzerkira joateko ohiturarik duten galdetu zaie herritarrei. Horretarako, arestian aipatu diren kultur ekitaldien teknika bera erabili da, azken urtean halako ekitaldiren batean izan ote diren galdetzea, alegia. 166 pertsonatik 83 (%50) joan dira antzerki emanaldiren batera, eta beste 83 (%50) ez. Antzerkian izan diren 83 pertsonatik, 60 (%72,29) euskarazko antzerkietan izan dira, kasu guztietan eo ia guztietan; 10 pertsona (%12,05), gaztelaniazkoetan; 12k (%14,46k) bietatik paretsu ikusi dituzte; eta 1ek (%1,20) beste hizkuntzaren batean ikusi du.

Antzerki saioaren batean izan zara azken urtean?, ehunekotan



- Antzerki saio batean edo gehiagotan izan da
- Ez da izan antzerki saio batean

Ikusitako antzerkien hizkuntza, ehunekotan



- Denak eo ia denak euskaraz
- Denak eo ia denak gaztelaniaz
- Bietan paretsu
- Beste hizkuntzaren batean

7. ONDORIO OROKORRAK

7.1. HIZKUNTZARI LOTUTAKO DATUAK

- Inkesta bete dutenen %95,18k euskaraz daki, eta %80,12k dute lehen hizkuntza bezala. Halere, %53,6iek soilik esan du euskaraz hobeto moldatzen dela beste hizkuntzetan baino. %30,12k esan du euskaraz eta gaztelaniaz berdin moldatzen dela.

7.2. KONTSUMO OHITURAK DENETAN ETA TABERNETAN

- Zenbat eta helduago izan, orduan eta garrantzia gehiago ematen zaio elikagaien eta halako produktuen ekoizpenari eta etiketatuari. Hain zuzen, %40,97k esan du beti edo ia beti begiratzen diola erosten duen produktua Euskal Herrian ekoitzia izateari eta etiketatua euskaraz izateari. Zifra hori %58ra igotzen da 40 urtetik gorako pertsonen artean.
- Dendetan eta tabernetan langile euskalduna izatea beti edo ia beti baloratzen dute adin talde guztietako herritarrek (%75,9). 26 eta 59 urte arteko herritarren artean da altuena portzentaje hori (%81,79).

7.3. KONTSUMO OHITURAK HEDABIDEETAN

7.3.1. Prentsa idatzia

- Tokiko prentsak presentzia handia du adin talde guztietan. *Goierriko Hitza* eta *Goiberri* dira papereko hedabide irakurrienak (%39,75ek).
- Herri hedabideen ostean, prentsa kontsumitzen ez duena da portzentaje handiena (%30,72); eta, ondoren, euskaraz ez diren beste egunkari batzuk kontsumitzen dituztenen ehunekoa dago (%16,87).
- Euskarazko hedabide nazionalak (*Berria* eta *Argia*) gutxiago kontsumitzen dira. Tokikoaren eta nazionalaren artean dago arrakala. Gorabehera batzuk tarteko, adin talde guztietan mantentzen da patroi hori.

7.3.2. Telebista

- Telebistaren kasuan, euskarazkoak ez diren kateak kontsumitzen dira gehien, oro har.
- Adin taldeei erreparatuz gero, 2 eta 39 urte artekoek gaztelaniaz kontsumitu ohi dute telebista; 4otik gorakoek euskaraz zein gaztelaniaz antzera.

7.3.3. Irratia

- Irratia ia erabat euskaraz kontsumitzen da. Gainera, adin talde guztietan da hori araua.
- *Gaztea* da kate entzunena, eta bigarren entzunena *Euskadi Irratia*. Bi kate horiek dira inkesta bete dutenen %6oren hautua.

- *Gaztea* irrati katea da entzunena 2 eta 39 urte artekoetan; *Euskadi Irratia* 20 eta 59 urte artekoetan eta *Segura Irratia*, berriz, 60tik gorakoetan. Denak euskarazkoak.

7.3.4. Webguneak

- Gehienek erantzun dute ez dutela ohiturarik albisteak Interneten irakurtzeko (%43,37k). Ondoren, euskarazkoak ez diren beste webgune batzuk aukeratu dituzte (%16,87). Eta horien, ondoren, neurri baxuagoan, euskarazkoak, hurrenkera honetan: *naiz.info*, *eitb.eus*, *berria.eus*, *goierri.hitza.eus* eta *argia.eus*.
- Adin taldeei erreparatuta, 2 eta 15 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak dira webgunea guztien erabiltzen dutenak albisteak irakurtzeko. 26 eta 39 urte artekoak dira aktiboenak euskarri horretan.

7.4. KULTUR EKITALDIEN KONTSUMO OHITURAK

7.4.1. Musika

- Inkesta bete dutenen gehiengoak berdintsu entzuten du musika edozer hizkuntzatan, eta adin talde guztietan errepikatzen da hautu hori.
- Hizkuntza bakar bat aukeratu dutenen kasuan, euskara da gehien aukeratu dutena.
- Inkesta bete dutenen ia erdiak izan dira azken urtean kontzerturen batean. Gehienak euskarazko kontzertuetan izan dira (%69,51).

7.4.2. Literatura

- Literatur kontsumoa, oro har, gaztelaniaz da. Euskara lehenesten dutenak %23,49 dira.
- Adin talde guztietan gaztelania gailentzen da, 2 eta 15 urte arteko irakurleen kasuan izan ezik. Kasu horretan, euskaraz edo hizkuntza bat baino gehiagotan irakurtzen dutenak dira nagusi (ia portzentaje berean).

7.4.3. Filmak

- Inkesta bete duten hamar lagunetik zortzik gaztelaniaz ikusten dituzte filmak. %5,42k hautatu du euskara. Adin talde guztietan aise gailentzen da gaztelania.

- Filmak zineman kontsumitzerakoan euskarazko hautua asko igotzen da. %14,93k dio azken urtean film denak edo ia denak euskaraz ikusi dituela, eta %23,88k, berriz, euskaraz zein gaztelaniaz, bietan paretsu ikusi dituela.

7.4.4. Antzerkia

- Inkesta erantzun dutenen %50 izan da antzerkian azken urtean, eta %72,29k euskaraz ikusi du. Antzerki bat baino gehiago hizkuntza bat baino gehiagotan ikusi dituztenak %14,46 dira, eta denak edo ia denak gaztelaniaz ikusi dituztenak %12,05.

8. GAIA LANTZEKO PROPOSAMENAK

Arestian aipatutako datuak ikusita, gaia lantzeko ertz batzuk identifikatu dira. Zati honetan, aukera horiek aurkeztuko dira; ondoren, dagokion arduradunak horren inguruko hausnarketa egin dezan.

- Herriko denden eta tabernarien arduradunei adierazi behar zaie herritarrek arreta euskaraz jasotzea baloratzen dutela. Beraz, zerbitzua eskaintzerakoan eta kontratazioak egiterakoan, hori kontuan har dezaten eskatu behar zaie, balio erantsia delako negozio horretan.
- Euskarazko hedabideekin elkarlana. Euskarazko tokiko hedabideek pisu handia dute herrian. Hori eta zaindu eta elikatu egin behar da. Itsasondoko Udala elkarlanean aritzen da Hitzarekin, eta bide horretatik jarraitzea komeni da. Izan ere, informazioa jasotzeko aukeratzen dugun bideak gure mundu-ikuskerara egituratzen du, eta estrategikoa da erreferentzia horiek euskaraz izatea. Bestalde, euskarazko prentsa nazionala sustatzeko bideak aztertu beharko dira. Askotan badirudielako tokiko albisteentzat soilik erabiltzen dela euskara, eta ez nazioartekoetarako, esate baterako.
- Telebista, prentsa eta irratitari dagokionez, udalaren mendeko eraikinetan, euskarazko hautua egin beharko litzateke. Horrez gain, ondo legoke tabernei, dendei eta halako zerbitzuei euskarazko hautua egitera sustatzea.
- Kultur kontsumoari dagokionez, garbi ikusten da euskarazko kultura gehiago kontsumitzen dela etxetik kanpo etxe barruan baino. Hori oso garrantzitsua da, aurrez aurreko ekitaldiei esker euskarazko erreferenteak gertuago sumatzen dituztelako herritarrek. Euskarazko eskaintzak pisu handia du Gipuzkoan, eta hori herritarren

kontsumo ohituretan nabari da. Berariaz hartutako erabakia da eskaintza euskalduntzearena, eta mantendu beharrekoa da. Erronka da ohitura horiek etxe barrukoetan ere eragiten asmatzea.

- Literatur kontsumoa umetan oso euskalduna da, nerabezaroan hasten da erdalduntzen, eta adin horretatik aurrera, gaztelania nagusitzen da. Euskarazko literaturaren inguruan dauden pertzepzioak aldatu behar dira, eta euskarazko obrak sustatzeko ahalegina egin.